

EGAN



Aurkibideak
1948-1992 / 1993-2017

2018 - 1/2

EGAN



LITERATURA ALDIZKARIA
EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA



Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak
lagundutako aldizkaria

Idazkaritza eta harpidetzak:
Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea. Gipuzkoako Saila.
Peña y Goñi 5, 2. ezk. – 3.263 posta-kutxa – 20002 Donostia

Posta elektronikoak: egan.bascongada@gmail.com
comisiongipuzkoa@bascongada.e.telefonica.net
Webgunea: www.bascongada.eus

ISSN: 0422 - 7328. EGAN
Legezko Gordailua: S.S. 289/1958
Inprimategia: FASPRINT-IGARA -Donostia

EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA

EGAN Literatura aldizkaria



Erredakzio Kontseilua

Zuzendaria:

Koro Segurola Azkonobieta (EAE. Euskaltzaindia)

Erredakzio arduraduna:

Ana Gandara Sorarrain (UPV/EHU)

Iñaki Aldekoa Beitia (UPV/EHU)

Izaro Arroita Azkarate (UPV/EHU)

Beñat Sarasola Santamaria (UPV/EHU)

Joseba Sarrionandia Uribelarrea (Idazlea)

Juan Luis Zabala Artetxe (Idazlea. Itzultzailea)

Egan literatura aldizkaria da, eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak 1948. urtetik argitaratzen du. 1953. urtean hasi zen euskara hutsez argitaratzen, Antonio Arruek, Aingeru Irigaraik eta Koldo Mitxelenak aldizkariaren zuzendaritza hartu zutenean. Ordutik *Egan* euskara hutsezko aldizkaria da.

Posta elektronikoa: egan.bascongada@gmail.com

AURKIBIDEA

2018 1-2

EGAN 1992-2017. 25 urteko ibilbidea. GILLERMO ETXEBERRIA..... 7

EGAN aldizkariaren garai berria. KORO SEGUROLA AZKONBIETA 19

EGAN (1993-2017).

(1993-2017) Aurkibideak. KORO SEGUROLA AZKONBIETA..... 31

I. Egileak 35

II. Gaiak 109

II.1. Adabakiak..... 109

II.1.1. Biltzarrak. Jardunaldiak 117

II.1.2. Hilberriak 118

II.1.3. Omenaldiak. Urteurrenak 119

II.1.4. Bibliografia 122

II.2. Ahozko tradizioa 124

II.3. Antzerkia 124

II.4. Azterketa literarioak 124

II.5. Haur eta gazte literatura 142

II.6. Herri literatura 145

II.7. Itzulpenak 146

II.8. Kritikak eta erreseinak 154

II.9. Sorkuntza 165

II.9.1. Antzerkia 171

II.9.2. Kontakizunak. Ipuinak 171

II.9.3. Olerkiak 172

III. Aleak 175

EGAN (1948-1992). Aurkibidea

Faksimilea 237

Idazlanak aurkezteko jarraibideak 371

EGAN 1992-2017.

25 urteko ibilbidea

Gillermo Etxeberria
EGAN aldizkariaren zuzendari ohia

Badira urteak, urte asko, *EGAN*en ardura hartu genuela. Hain zuzen, 1992. urtean eskaini zitzaigun *EGAN*en argitalpenaren ardura. Jose Maria Aycart Orbegozo, garai hartan Gipuzkoako Adiskideen Elkarteko ardura-dun zena, izan zen zeregin hau eskaini ziguna Luis Mari Mujika adiskideari eta bioi. Gurekin zuzeneko ardura hartu zuena Jose Antonio Zabala jauna izan zen.

Hasieran izan genituen hainbat eta hainbat zalantza. Agian literatur aldizkari batek bere baitan duen kalitatea, aniztasuna, konplexutasuna eta ardura izan genituen solasgai Luis Marik eta biok, beste hainbat lagunekin batera.

Luis Mari ezaguna zen, ordurako hainbat lan eginak baitzituen, edonolakoak, poesiak, narrazioak, saiakerak... Poesiaren arloan, Koldo Mitxelena 1964. urtean *Bide giroak* (Sendoa, 1963) liburuari egindakoa aipagarri da. Aipagarri, bederen, honako beste poesia liburuak: *Hitzak ebakitzean*, (Kriseilu, 1975), *Zortziko hautsiak* (Ed. Vascas, 1978), *Herria eta Bidea* (Ed. Vascas, 1978), *Arnas gaiztoa erromantzeen airera* (E.V., 1979). Horretaz gain, poesia liburuak, narrazioak, saiakerak eginak zituen ugari gure adiskideak. Gerora, *EGAN* garaian ere etengabeko etekina eman du, sariak ere bereganatuz. Agian, inor gutxi da berak hainbat sari eskuratu dituenena. Esaterako, *Hitzak ebakitzean*, (Lizardi poesia saria), *Hiru egun Larburun* (BBK 1996), Txomin Agirre eleberri saria, *Nire soneto beroak* (Kutxa 1997), Irun Iria saria...

Beraz, biok ekin genion *EGAN* aldizkariaren argitalpenari Euskalerriarren Adiskideen Elkartearen baitan.

Adiskideen Elkartek, bere sorrera beretik, euskara bere hizkuntza moduan defendatu eta garatzeko asmoa hartu zuen. Lehen Estatutuek (1765), bere helburuen artean zera diote: *Pulir y cultivar la lengua vasca* (ikus “La Real Sociedad Bascongada y el euskara”, Emilio Mujica). Zigiluan ere garbi ageri da *Irurac bat jartzean*. Bergarako Ikasleen mintegiko araudietan ere gauza bera: *los estudios de las lenguas deberán empezar por el de las Nacionales como son el Bascuence y el castellano*, nahiz eta besteak ere gogoan izan behar diren.

Horren adibide dira fundatzaileak berak, Xabier Munibek (1723-1785), egindako adierazpenak eta bi antzerkiak: *El borracho burlado* eta *Gavon sariac*. *El borracho burlado* euskaraz idatzia izan den lehen irri opera. 1964an Bergaran argitaratua eta antzetzua. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzia, kantuak euskaraz eta hainbat elkarrizketa elebidun.

Gavon sariac: “olerti bukolikoa”. Azkoitiko elizan 1762an kantatzeko eguberri-kantuak. Luisa de la Misericordia izenpean, badirudi Munibe bera dela (Hainbat autore, *Euskal Literatura* II, 61) Arestik ere biziki gorai-patu zuen Auspoa 48. zenbakian *Teatro zaarra* izenpean. Ezaguna da, era berean, “irten ezazu” doinua eta letra, hau ere Xabier Munibek egina, “Adio pobintziya” zortzikoa eta “Aita gurea”. Emilio Mujikak aipatutako lanean esaten duenez, Aizpitarteren eraginpean idatzi nahi izandako *Diccionario del Vascuence* ere bultzarazi zuen.

Bergarako Seminarioan ere hainbat bazkidek euskara erabiltzen zuten haien hitzalditan, nahiz gerora, kanpo ikasleen eraginez, urritu egin zen euskararen presentzia. Ez dezagun ahatz *Peru Abarka* idatzi zuen Mogel Bergarako euskal irakasle izan zela.

Dena den, Peñafloidako Kondea hiltzerakoan, ekonomia arazoak handitu egin ziren, eta horren ondorioz Adiskideen Elkarteko eragina ere urritu egin zen.

Beraz, alde horretatik, euskararen presentzia nabarmena izan zen Adiskideen Elkartean hasierako garaian.

Geroko elkartearen historian ez zuen eragin nabarmenik izan euskararen presentziak.

Urteetan jauzi bat eginaz, gerra ondoren 1944. urtean ekin zion Elkartek berriro ere presentzia publikoari. Dakigunez, *EGAN* aldizkaria 1948. urtean sortu zen, eta geroztik 1992. urtera arte bere historia pro-

pioa egin zuen. Urte horretan zuzendaritzan sortutako hainbat arazoren ondorioz hartu genuen argitalpenaren zama.

Elkarteak guri eskaini ziguna, ez zen *EGAN* argitaratzea bakarrik, areagoa zela ulertu genuen gure esku utzi ziguten lana: Adiskideen Elkar-tea euskararen mundura berriro plazaratzea eta gure elkarte, elkarte esanguratsu bihurtzea arlo horretan, iruditzen baitzitzaigun herri xehe-tik urruntxo zegoen taldea zela, eta haren barnean euskararen presen-zia, nahiko urria.

Beraz, gure ardura, bikoitza zen: aldizkaria eta Adiskideen Elkarteko presentzia euskararen kultura munduan.

Noski, gure zeregin nagusia, betiere, *EGAN* indartsu bat, sendo bat, edukiz betetako bat argitaratzea zen eta izan da gerora ere. Esan al daite-ke, gaur egun, mende laurden honetan lortu duela txoko errekonozitua euskal literatur aldizkariaren munduan? Asko izan dira hasi eta utzi beha-rra izan duten aldizkariak. Besteak beste, eta batzuk aipatzearen: *Euzko Gogoa* (1950-1959), *Olerti* (1959-1995), *Pot* (1978-1980), *Susa* (1980-1994), *Garziarena* (1992-1994; 1997-1998).

Gureak, gorabeherak izan dituen arren, hutsuneren bat tartean, bor-titz heldu dio bere bideari. Uste dugu bere espazioa lortu duela.

Gerra ondorena, latza izan zen euskal munduarentzat. Euskara ere debekatua izan zen, euskal mugimendu kulturalak guztiz deseginak. Eus-kal Herritik ihes egindako lagunak asko eta asko, haien artean euskal munduan ezagunak ziren eragileak eta idazleak. Gure herria desertu huts bihurtu zela zirudien, eta euskal kultura desagertua. Gerrak, guztiz sun-tsitu zituen: Aitzolen eraginpeko mugimendua, Labaienen antzerkia, ber-tsolaritza. Euskaltzaindia bera ere desegina geratu zen.

Gerra ondorengo lehen urteak euskal literatur munduan guztiz hutsalak ziren. Argitalpenak gutxi eta mugatik urrun. Besteak beste, Ipa-rraldean, Donibane Lohizunen *Gernika* izeneko aldizkari bat sortu zen 1945. urtean. Eta bertan hasi ziren idazten Hegoaldeko hainbat eta hain-bat idazle.

Erbeste garaian hasi ziren argitalpenak Buenos Airesen *Ediciones Vas-cas*, Mexikon *Pizkundia*, eta Parisen ere lan literario interesgarria heda-tzen hasi zen.

Eragin horren fruitu izan ziren Mexikon Telesforo Montzonen lehen poesia liburua, *Urrundik*, eta Irazustaren *Joanixio* nobela 1946. urtean Bue-

nos Airesen. Eta hemen barnean, klandestinitatean egindako hainbat lan-txo besterik ez, batik bat seminario eta apaizetxeetan. Arantzazuko fraiddeen artean, Salvatore Mitxelena aipagarri da barneko literatur hasieran *Arantzazu* poema 1949. urtean argitara ematean.

Beraz, garaialdi gogorra, zakarra, eta arriskuz betea idazleentzat. Egoera horretan sortu zen *EGAN* aldizkaria, 1948. urtean, eta sortu ere, garaiko eta gero ere hain ezagunak izan diren Antonio Arruek (1903-1976), Aingeru Irigarai (1899-1983) jaunak eta gure artean maisu ezaguna izan den eta den Koldo Mitxelenak (1915-1987). Garai zailak eta arrisku-tsuak ziren euskal argitalpenentzat, beraz, hasieran aldizkari elebiduna izan zen, gaztelaniaz eta euskaraz apur bat. Frankismoak zorrotz begiratzen zituen euskarazko argitalpen guztiak, horregatik, seguruenik Antonio Arrueren bitartekaritza tartean, lortu ahal izan zen *EGAN* argitara ematea. Hasierako aleak txikiak izan ohi ziren, orri gutxikoak, eta euskarazko aldea ere tentuz erabaki beharrekoa. Horregatik, sarritan euskal aldean poesiaren bat edo narrazio laburren bat edo beste ematen zen argitara. Hala ere, barneko edukia zabaltzen joan zen gero eta gehiago, egoerari neurri batean aurre eginez. Urtero lau ale argitaratzera iritsi ziren fundatzaileak, harik eta poliki-poliki elebakar bihurtu zen arte.

Hegoaldean, bestalde, euskal arloan gero eta lan gehiago argitaratzen hasi zen, eta frankismoko eragin zorrotzari aurre egiten hainbat eta hainbat idazle. Garrantzi berezia izan zuen Jokin Zaitetik Guatemalan sortutako *Euzko Gogoak* 1950. urtean. Bertan kolaboratzen hasi ziren Andima Ibinagabeitia, Orixe, eta barneko hainbat eta hainbat idazle. Muga barruan ere idazleak gero eta lan gehiago aurkezten hasi ziren, lehen esandako Salvatore Mitxelenaz gain, Jon Etxaide, besteak beste. Eta bazi-rudien euskal literatura, poliki-poliki bere onera itzultzen hasia zela.

Esan daiteke 1954. urtea funtsezko urtea bihurtu zela. Ordura arte *Egan* aldizkariaren ardua izandakoak, lehen esan dugun moduan, Antonio Arrue, A. Irigaray eta L. Mitxelena. Horien kolaboratzaile estu izan ziren hasieratik Nemesio Etxaniz, Jon Etxaide, A. Erkiaga. Jon Kortazarrek *Grupo literario del 50* deitzen ditu.

Egoera horretan hiru zuzendariek sarrera hitzetan beren erabakien berri eman zuten (*Egan*, 1954, 2-4, 1-2 orriak) *Asmo berri* izenpean. Artiku-lu horretan etorkizunari begira dituzten gogo eta asmoen berri adierazten dute. Garai hartan hiru zuzendariak gazteak ziren eta euskararen munduan ilusioz eta gaurkotasunez beteak:

- 1.- Lehenengo eta behin berritu beharra adierazten digute. Ordurako hainbat laguntza eskuratuak zituzten, batik bat Gipuzkoako Diputazioak sorturiko “Julio de Urkixo” Euskal Filologi Mintegiak bere gain hartu zuen aldizkariaren ardura. Ondorioz, “maizago, ugariago eta ornituago” argitaratu nahi dute.
- 2.- Aldizkari bizia nahi dute *EGAN* : “Eta biziekin ari geran ezker eta darabilgun izkuntza bizia den ezker, gaiak ere biziak, gaurkoak, nai genituzke. Sarriegi azken-aldi onetan euskerak, olakoak erabiliak bere trebetasuna erakutsi bearrean, bere eritasun eta makurrak dituela beti aotan, guziok ezagutzen ditugun zenbait pertsona mintsuk bezala...”
- 3.- “Kalera begira ari nai dugu, baserrira begira baiño gehiago. Eta, kalean, gure gisako ikasi edo erdi-ikasientzat”. Beraz, “modernitate kultur arloan” dute buruan betiko “erruralismotik urrun”, “eskura zaigun arloan” “bestetan ari duenari eragozpenik jarri gabe”.
- 4.- Denen beharrean aurkitzen direla baieztatuko dute, idazle, irakurle...: “Askoren bearrean generala badakigu. Indarrez kaxkar gera, ez-tigu iñork esan bearrik, eta etorritz urri. Eskerrik beroenaz artuko ditugu beraz iñork bidali nai dizkigun idaz-lanak”.
- 5.- Azkenik, “lanaren kalitatea” aldarrikatzen dute: “Argitaratzeko muga, aldizkariaren neurritz kanpora, gaiak bakarrik ipiniko du”.

Geroztik *EGAN* aldizkariak bizimodu luzea eta sarritan indartsua ere izan duela baieztatu daiteke. Hiru zuzendariez gain, garaiko idazle askok eta askok hartu du parte bertan.

Hiru zuzendari horiek zuzendaritza utzi zutenean, Juan San Martinen esku geratu zen *EGAN*. Honek gidatu zuen aldizkaria harik eta guk, Luis Mari eta biok, 1992. urtean gure esku hartu genuen arte.

Izan ditu aldizkariak historian zehar zenbait atal ospetsu: Antonio Arrueren *Jan-edanak*, gerora bilduma egin eta argitara eman zena, *Naas maas*, Koldo Mitxelenaen zinema-kritikak... kritika literarioak...

Euskal literaturak bere garapenean izan dituen autore garrantzitsu askok idatzi dute *EGAN* aldizkarian eta 60. hamarkadatik aurrera izan den garapen garrantzitsuaren testigu izan da. Bertan aurkitzen diren artikulak, eta bertako autoreak dira baieztapen honen testiguak: Txilardegi,

Jon Mirande, Jon Etxaide, Agustin Zubikarai, Iratzeder, J.M. Lekuona, Charriton, Haritsxelahar, Aresti, Jon Kortazar, Patxi Salaberri, Pako Sudupe, J. M. Lekuona eta abar.

Era berean, *EGAN* beti ibili da Euskaltzaindiak lerratutako bidean, eta horretarako abantaila handiak zituela ez dago dudarik, bertako zuzendari zirenak eta hainbat idazle izan baitziren Batua bideratu zutenak. Horren lekuko Juan San Martin, Luis Mitxelena, besteak beste.

Luis Mari Mujikari dagokionez, esan daiteke etengabe kolaboratu zuela *EGAN* aldizkariaren argitalpenetan hirurogeiko hamarkadatik aurrera, eta bere lanen kritikak ere eman ziren argitara.

Luismariren artikuluak eta lanak 40tik gora dira, ez edonolakoak, kritikak, artikuluak, poesiak, denetarik...

* * *

Lehen esan dugunez, aldizkaria gure esku geratu zen 1992. urtean. Gu bion esku, Luis Mari eta biok hartu genuen zeregina osoki, arduraren, argitalpena, lanen kalitatearen bermea, harpidedunen harremana, Kultura arduradunekin. Hau da, “factotum” moduko zerbait. Egia esan, ez dugu idazle on askoren artikuluak faltarik izan. Esan daiteke euskal filologian ezagunak direnen artikulu asko eta asko eman direla argitara. Horien artean, batzuek aipatzeagatik, Jon Kortazar, Juan Mari Lekuona, Patxi Salaberri, Iñaki Zubeldia, Xabier Etxaniz, Pako Sudupe, Haritxelhar, Piarres Charriton, Patri Urkizu, Juan Luis Zabala, Ixabel Etxeberria, Piarres Larzabal, Antton Luku, Juan San Martin, Joxeba Gabilondo... eta abar.

Kalitatea izan dugu beti gogoan, 1954. urtean zuzendariak egin zutenaren modura, edukia eta edukiaren batasuna, azalpenen argitasuna eta zehaztasuna, aipamen egokiak, euskararen maila, batuaren ereduak, besteak beste.

Horretarako itzulbira asko eginak gara Euskal Herrian zehar, auto-reekin hitz egitera, diru-laguntzak eskatzera, omenaldiak egitera.

Gure garaian herriarengandik hurbil egoten saiatu gara, horretarako omenaldiak eta hitzaldiak antolatuz. Uste dugu, hein batean bederen, lortu dugula hurbilketa hori. Hurbilketa horren adibide dira urte hauetan zehar antolatu ditugun hitzaldi, omenaldi eta argitalpenak. Haietako hainbat eta hainbat datozkit burura, nahiz askoren datak ere ahaztuxeak ditudan.

- 1993. urtean Adiskideen Elkarreak bisita egin zuen Mexikoko Delegaziora. Gu ere bertan izan ginen eta EGAN aldizkariaren presentzia aldarrikatu genuen urrutiko lurralde haietan.
- Hurrengo urtean, 1994an, *Euskal antzerkia. Pastoralak* gaiari buruzko ikastaro bat burutu genuen, eta bertan izan ziren, besteak beste, garaian ezagunak ziren Roger Idiart, pastotal idazlea, Pier Paul Berzaiz, pastoral arloan espezializatua...
- Geroztik, etengabe egin ditugu omenaldiak, Udako Unibertsitateko ikastaroak eta horien osagarri hainbat argitalpen, gehienak Gipuzkoan, eta nolabait Bizkaian ere. Horiek gogoratzen hastean, nire memoriak batzuk besterik ez ditu gorde. Gogoan ditudanen artean:
 - 1999an omenaldi hunkigarri bat egin genion D. Nemesio Etxaniz Azkoitiko apaizari, hitzaldiak eta liburu bat argitaratu emanaz.
 - 2000. ean Andoaingo jesulagun izandako Patxi Etxeberria izan zen omendua. Andoaingo Areto Nagusian hainbat hitzaldi antolatu genituen. Haien artean gogoangarria iruditzen zait gure lagun zen (G.B.) Juan Mari Lekuonak eman zuena Patxi Etxeberriaren poesia bati buruz, “Bost lore” izenekoa. Patxi Etxeberria Ezkio-Itsasoko erretore izan zen, eta han ere egon ginen omenaldia eta hitzaldiak antolatzen. Omenaldi honetan hartu zuen parte gurekin batera Aita Patxi Altuna jesulagunak, eta bi liburu argitaratu genituen Andoaingo Udalaren laguntzarekin.
 - Urte honetan bertan, Oiartzungo Pagoarten Julen Lekuonaren kantaldia antolatu genuen. Dakigun bezala, Lekuona *Ez dok hamahiru* talde ospetsuaren sortzaileen artekoa zen. Bertan izan ziren garaiko hainbat kantari, Imanol barne. Esan beharrik ere ez dago, zer-nolako arrakasta izan zuen ekintza honen.
 - 2001. urtean hil zen Jose Antonio Zabala ospetsua. Bergararra izanik, Donostian bizi zen. Enpresa gizona, garaiko alkate ospetsuen artekoa, eta *Gureak* lagun atzeratuen sortzaileen arteko pertsonaia nagusia. *Egani* paregabeko laguntza eman zion, gure xoxa murrizak administratzen zituen eta era askotako laguntzak eskaini zizkigun. Elkartetik bera izan genuen

bazkiderik adiskideena eta hurbilena. 2001. urtean hil zen eta esker onez, Bergarako Udalarekin batera, haren omenez hainbat hitzaldi prestatu genituen Bergaran bertan eta Foru Alundian.

- Hurrengo urtean, 2002.ean, Lekuonatarren artean ezagunena eta laguna genuen Juan Mari Lekuonari omenaldia: hitzaldiak eta liburu baten argitalpena Oiartzungo Udalaren laguntzarekin.
- Hegoaldeaz gain, ekintza asko egin ditugu Iparraldean. Gure elkarteak *Euskaltzaleen Biltzarraren* partaidea da eta guk ordezkatu genuen urteetan. Hori dela-eta *Euskaltzaleen Biltzarrak* antolatutako hitzaldi eta argitalpenetan parte hartu dugu urteetan zehar, betiere gogoan izanik iparra/hegoa, bi-biek herri bakarra osa-tzeko euskarak eta euskal ekintzak duten garrantzi bereziaz.
- Ildo horretan, gure lehenengo ekintza garrantzitsua 2003. urtean egin genuen Heletan. Hitzaldiak Euskal Herriko Unibertsitatean eta Heletan Etienne Salaberry omenduaz. Bi liburu argitaratu ziren, bat Pako Sudupek prestatua *Etienne Salaberry I* izenarekin, eta, bestea, Joxe Azurmendik egin: *Etienne Salaberryren filosofia II*.
- 2004. urtean egun berezi bat ospatu genuen Errezilen. Maria Dolores Agirre-ren mendeurrena zela eta, bertan antolatu genuen egun zoragarri bat: meza, hitzaldiak, bazkaria eta hainbat eta hainbat kantarien partaidetzarekin. Bertan egon ziren herriko alkatea eta zinegotziak, Eusko Jaurlaritzako Miren Azkarate, Donostiako hainbat eta hainbat lagun Maria Dolores Agirreren ikasle izanak. Patri Urkizu idazle ezagunak Maria Dolores Agirreren liburu bat argitaratu zuen.
- Urte hartan bertan, beste mendeurrena ospatuz, Telesforo Monzoni omenaldia eta haren idazketa eta antzerkiari buruz mintzaldiak Baionan, Donostian eta Bergaran.
- 2005. urtean *Kixoter*en argitalpenaren mendeurrena ospatuz, ikastaro bat antolatu zen *Kixoteri* buruz. Arduradunak Joxe Mari Urkia eta *Eganekoak* izan ginen. Ikastaroak lau egun iraun zuen.
- Hori zela eta, Jon Berrondo jaunak, hau da, orain arte *Kixote* osoa tzuli duen liburu argitaratu genuen eta haren aurkezpena egin, bai Udako Unibertsitatean eta bai Madrilen ere bertako Biblioteka

Nazionalean. Harrera ezin hobea izan zuela esan beharrik ere ez dago. Bertako arduraduna ere, Lopez jauna, harrituta geratu zen jendearen presentzia handiarekin. Geroztik Madrileko SECC-ekin harremana mantendu da hainbat urtetan.

- Urte honetan bertan, omenaldia Jean Pierre Arbelbideri bere jaioterrian, Zaron (Nafarroa Beherea). Bere iloba Xiprik idatzi zuen liburua gure laguntzarekin.
- Bizkaian ekitaldi asko egin ez ditugun arren, azpimarragarri deritzogu Esteban Urkiagari, Lauaxetari, egindako omenaldia. *Egan*-ek bere hitzalditxoa eman zuen Bilboko Euskaltzaindian eta Mungian, Lauaxetaren jaioterrian.
- 2006. urtean Postmodernitateri buruzko hainbat ekitaldi antolatu genituen Donostian, Koldo Mitxelena Kultur aretoan. Gaur egun gaiari buruz espezialista diren hainbat irakasle izan genituen gure artean. Ameriketatik ere etorri zen Joseba Gabilondo jauna.
- Alduden (Nafarroa Beherean) ere izan ginen herriak Jean Etxepareri egindako omenaldian.
- 2007. urtean, Leizarraga, euskal idazle protestantea omendu genuen bere jaioterrian, Beskoitzen. Bertan egon ziren gure arteko hainbat eta hainbat idazle eta saiakera egile: Enrike Knörr, Patxi Salaberri, besteak beste. Liburu bat ere argitaratu zen Leizarragaren omenez, Salaberrik paratua: *Leizarraga zaharra, Leizarraga gaurkoa*.
- Izan gara beste leku askotan ere, haietako asko oroitzapenean ez daudenak. Lasarten Andoni Arozena omenduaz, Orion Joakin Arostegiri egindako omenaldian eta abar; asko dira gogoan ez dauzkadanak.

Ekitaldi hauek guztiak, etengabe jarri gaituzte herri xehearekin harremanetan, gure izena haiengana hurbildu dugu eta ezagunak izatera iritsi gara hainbat eta hainbat lekutan.

Garrantzi berezia eman izan diogu Iparralde-Hegoalde loturari, hizkuntzak egiten baikaitu herri bakar, eta urte batzuetan etengabe hartu dugu parte haien ekintzen artean bai antolaketan, bai eta hitzaldi eta argitalpenetan. Gaur egun ere *Euskaltzaleen Biltzareko* partaide gara.

Ekintza eta zeregin horietan guztietan parte hartu du *EGAN* aldizkariak eta EAEk. Betiere, gure indar murrizak, pertsona faltak, liberaturik ezak, diru eskasiak uzten zuten esparruan.

Noski, *EGAN*en arduradunak Luismari eta biok ginen neurrian, bion presentzia derrigorrezkoa izan ohi zen, batak ezin bazuen, bestearena.

Baina Luismariren lan esparrua ez zen *EGAN*en arduetara soilik mugatu. Zabalagoa zen bere lan esparrua eta beti bezala jarraitu zuen bere beste lanetan: poesiak, nobelak, saiakerak, toponimiak, artikulua euskaraz, gatzelaniaz. Eta horiez gain, Unibertsitateko irakasle katedratikoa Irakasle Eskolan.

Lerro hauetan ez dugu ahaztu nahi Bergarako Idazle Eskolarekin eta ikasle gazteekin izan dugun harremana. Bergarako Idazle Eskolak urrian zabaltzen ditu bere ateak. Idazketa eta sormena lantzeko gogoz dauden ikasleak sartzen dira bertara. 2003an sortu zen eta urte hauetan guztietan bere idazketa metodologia eta pedagogia garatu du. Euskal literaturan, testugintzan eta kulturgintzan bere arrastoa ere uzten ari dela esan daiteke. Idazle Eskolaren helburu nagusia da ikasleen idazteko gaitasuna hobetzea, idazteko erabil daitezkeen estrategia sortzaileak irakatsiz. Punta-puntuko euskal idazleak dira Idazle Eskolako irakasleak: Edorta Jimenez, Tere Irastortza, Pako Aristi, Xabier Lopez eta Itziar Gomez.

*EGAN*ek ere bere aletxoak jartzen dio Bergarako Idazle Eskolari. Gure harremana zuzendariekin eta hainbat ikasleekin izan ohi da. Urtero osatutako lan onentxoak eman ohi ditugu aldizkarian.

25 urte pasa zirenean, Luis Mari eta biok pentsatu genuen *EGAN* aldizkaria ideia berriagoen, jende gazteagoen eta modernoagoen eskuetan uzteko garaia iritsi zitzaigula.

Gure garaia agortuxe nabaritzen genuen, biok erretreta hartuta eta ideia berriren faltan ikusten genuen geure burua. Eta horrela adierazi genion EAEko zuzendaritzari duela urte bat eta gehiago. Bestalde, erabakia hartu eta berehala Luis Mari zendu zitzaigun, guretzat ustekabean, ohikoa dugun gaitz maltzurak menderatuta. Zuzendaritza berriak transizio luzea egin ondoren badirudi bere esku hartu duela aldizkari honen oraina eta geroa.

Eta hori da *EGAN* aldizkari honetan adierazi nahi duguna. Uste dugu esku on eta prestuetan utzi dugula, eta etorkizunari begira oinarri sendoa jarria geratzen dela. Ondo formatuak eta euskal literaturaren mundua eta problematika ezin hobeto ezagutzen dutenak.

Garai berri honetan, ezinbesteko aldizkaria behar du izan euskal literaturan. Erreferentziazko aldizkaria bilakatu behar da puntako aldizkarien pareko homologazio akademikoa lortuz. Erabilgarria, irakurgarria eta interesgarria.

EGAN aldizkariaren garai berria

*Koro Seguro*la Azkonobieta
Egan aldizkariaren zuzendaria

Egan literatura aldizkariak 70 urte betetzen ditu aurten, eta urteurrena ospatzearekin batera garai berri bati hasiera ematen dio. Azken hogei-ta bost urte hauetan Luis Mari Mujika zena (1939-2017) eta Gillermo Etxeberria izan ditu zuzendari. Orain talde berri bat abiatu gara aldizkaria gidatzeko, eta lerro hauetatik bihoakie gure esker ona urte horietan guztietan egin duten lan isil eta eskergagatik; *Eganek* 1993tik egin dituen ekarpenak dira horren lekuko.

Ohorea da guretzat Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak 1948. urtean sortu eta ia etenik gabe gaur arte argitaratu den *Egan* aldizkariaren gidarritza hartzea. Ohoreaz gainera, *ardura* eta *erantzukizun* handia izango da aldizkaria eraberritzea, gaurkotzea, garai berriotara egokitzea, kalitatea eskaintzea eta erakustea, goi-mailako aldizkaria izan dadin.

Egan aldizkaria hastera doan hegaldi berriaren nondik norakoak ulertzeko, komeni da XX. mendeko 40ko hamarkada latzenean abiarazi zutenen berri izatea eta aldizkariaren 70 urteko ibilbidea ezagutzea. Aurkezpen honetan zertzelada batzuk baino ez ditugu eskainiko, aski izango direlakoan, hala uste dugu, aldizkariaren norabide berria argitzeko.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte (EAE) XVIII. mendearen bigarren aldiari jaio zen, eta Euskal Herriaren aurrerapen soziokulturalari bultzada nabarmena eman zion. Mitxelenaren hitzetan, “es acaso el hecho más trascendental de la historia vasca en el orden cultural. [...] Lo que importa sobre todo lo señaló ya el mismo Urquijo: «Examínese... la labor de la discutida Sociedad Económica Bascongada con anteojos ortodoxos o con gafas librepensadoras, nunca podrá negarse al conde de Peñaflores y a sus amigos el mérito de haber sido los promotores de la cultura en nuestro país»” (Mitxelena, 2011 [1960]: 153).

Elkartea sorreratik agertu zen euskara lantzearen alde, 1765eko lehen estatutueta erakusten den bezala: “IX. [...]. Unos (Socios) se dedicarán à las Mathematicas, [...] otros se aplicarán à pulir, y cultivar la lengua Bascongada, ò recopilar lo mas raro, y escogido que haya escrito en ella, assi en prosa, como en verso, y à perfeccionar la Poesia Bascongada [...]” (Estatutos 1765: 7-8). [Azpimarra gurea]. Balio historiko nabaria zuen honek, eta Joseba Intxaustik dioenez, “agian lehenengo aldiz gertatu zen euskararen aldeko asmo egituratu bat Hegoaldeko Elkarte zibil batean honela erabaki eta onartzea” (2014 [1998], I: 45).

Elkartearen ekimen gehienen abiaburuan, oro har, ezagutzarekiko zaletasuna aurkitzen da, eta gogora dezagun horren emaitzarik ikusgarriena Bergarako Mintegia izango dela (1776). Ikasleentzat prestatutako arautegian ere berretsi eta zehaztu egin zituen hizkuntzekiko irizpide pedagogikoak: “El estudio de las lenguas es el mas propio para la juventud [...] Deberán empezar por el de las Nacionales, como son el Bascuence y el Castellano, luego se seguirán el Latín [...]” (Reglamento 1985: 9-10).

Hastapenetik eta arautegi zehatzagoetan ere aitorpen garbia egin zioten hizkuntzari. Hezkuntza egitarauan azaldutako asmo haiek, ordea, zenbait gorabehera tarteko, okertu egin zirela badakigu (Larrañaga, 1991; Madariaga, 2014). Elkartearen hizkuntz jokabideari buruz asko dago argitzeko, baina ezagutzen dira hainbat bazkidek egindako proposamenak, euskal lanak eta euskara sustatzen ere egin zuten ahalegina. Peñafloidak berak (1729-1785), idazlea ere izateaz gain, euskal hiztegi baten egitasmoa bultzatu eta idatzi zuen, J.M. Aizpitarteren ardurapean utzi zuena (“Instrucción para la formación de un diccionario de la lengua bascongada” *Extractos...* 1781: 89-105). Hona, hiztegiaren helburua zehazterakoan euskara nola definitzen duten: “I. El fin principal del diccionario bascongado ha de ser el de ilustrar la historia de España, considerando a esta lengua como a uno de los monumentos mas antiguos y estables de la nacion, y consiguientemente de los mas capaces de aclarar muchas obscuridades de la antigüedad por medio de las investigaciones [...]. III. Siendo el bascuence una lengua de tradicion [...] en que no hay, o a lo menos no se conoce libro alguno escrito, que tenga antigüedad remota [...] se hace preciso multiplicar investigadores [...]” (89-90). [Azpimarra gurea].

Alor honetan, Xabier Altzibarren laburpen honek lagun lezake ikuspegi orokor bat izaten:

Aiton-eme ilustratuok euskalzale ditugu. [...] Literaturgintza, hezkuntzari eta herriaren –Euskal Herriaren– aurrerakuntzari lotzen zaio,

[euskarazko edo euskararen aldeko] lanotan ikus daitekeenez. [...] Peñafiorida euskal idazle, antzezleri, musikalari etab. izateaz gain, gidari da alor honetan ere. [...] Egia da Batzarreak gaztelera bultzatu, trebatu eta garatu zuela. Bestalde, Batzarreak bileretan hitzaldi, arenga, laudorio bidez elkarri zuzentzeko ohitura berria ekarri zuen. Euskarak ordura arte pulpitora baizik ez zuen beste inorako sarrerarik. Zalduntxo hauen eskutik, jendeaurreko forora ere, areago, goi mailako kulturadunen fororako ere ukan zuen sarbide (1985, II: 1132).

Adiskideen Elkartek 250 urteko historian garai ezberdinak ezagutu ditu. XIX. mendearen hasieran desagertu egin zen ia, eta XX. mendeko 30eko hamarkadan Elkartearen jardunak behera egin zuen berriro ere, baina 40ko hamarkadan, 1943an, suspertu zen, Elkartea biziberrituz. Susperaldi horrekin batera, eta gerraoste gordinen, jaioko da Donostian 1945. urtean *Boletina* (BAP) eta 1948an *Egan*, buletinaren literatur gehigarria, elebiduna.

Elkarteko Gipuzkoako Sailak 1948ko uztailaren 23an egin zuen batzarren agirian, *Egan* argitaratzeko baimenaren zain direla adierazten da:

No habiendose recibido aun de la Dirección General de Prensa la autorización indispensable para la publicación del naciente suplemento del Boletín, se acuerda esperar a su llegada para distribuir el cuaderno 2º año IV, al que irán unidos los dos números aparecidos. Como se hizo la oportuna gestión por escrito y de palabra cerca de dicho organismo del Estado, por los señores Conde de Peñafiorida y Ciriquiain, manifestaron estos que confían en una pronta y favorable resolución (1948. Batzar agiria. Batzarkideak: D. Julio de Urquijo, Fernando del Valle, Conde de Peñafiorida, Mariano Ciriquiain, Amadeo Delaunet, Joaquin M. Baroja eta Jose Mª de Azaola. 1943an Julio de Urquijo lehendakari izendatu zuten, eta agiria sinatzen du Delaunet idazkarariarekin batera).

Eganen sorreraren berri Elkartearen *Boletinean* eman zen, 1948ko 2 zenbakian (262-263, *Miscelánea* sailean) hain zuzen ere, eta buletinaren literatur gehigarri gisa gaztelaniaz eta euskaraz idatzita argitaratzen dela zehazten da. Gazte-jendeari begira jaiotzen da, gazteriarren kezka literarioak biltzeko eta adore emateko. Euskal kulturgintzari dagokionez, 40ko hamarkada latzenean Hegoaldean sortu ziren goi mailako bi aldizkariak, *Boletina* -kultur aldizkaria- eta *Egan* -literatura aldizkaria-, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen eskutik jaiotzen ziren.

Boletina sortu eta zazpi urte gerorago, 1952an, argitaratu zen han lehen lana euskaraz, Luis Villasanteren Euskaltzaindiko sarrera hitzaldia, Trabajos de la Academia Vasca-Euskaltzaindia-ren lanak atalean (BAP

1952-8/1, 91-119; 1952-8/2, 259-298). Adiskideen buletina urte horretatik aurrera Euskaltzaindiari buruzko berriak argitaratzen hasi zen.

Urtebete geroago, 1953. urtean, heldu zen *Egan* aldizkariaren aldaketa: gaztelaniari ere leku eginez abiatu zena, bost urteren buruan erabat euskarazko aldizkari bihurtzea. Honela zioen Juan San Martinek: “gure historian inoiz gerta ez dena gertatu zen, zazpi [sic] urteren buruan euskara hutsezko aldizkari bihurtzea” (1984-5/6: 5). 40ko hamarkadan elebidun sortu eta elebakartasunera aldatu zen euskal aldizkari bakarra izan zen.

Aldaketa adierazgarri honen ingurukoak Adiskideen Elkarteko 1952ko eta 1953ko batzar agirietan jasotzen dira. Elkarteko Gipuzkoako Sailak 1952ko abenduaren 6an egindako batzarrean, *Eganen* argitalpena etetea erabakitzen du, inprimatze lanak garestiak zirelako: “el papel que consumen esas publicaciones [*Boletinak* eta *Eganek*], en los que se invierte considerable suma del presupuesto de gastos. [...] La Revista *Egan* quedará suprimida desde esa fecha con una explicación al lector” (EAE 161 Batzar agiria). 1953an, eta Donostiako Julio de Urkixo Euskal Filologia Mintegia (SFVJU) sortzearekin batera, Elkarteko Gipuzkoako Sailak 1953ko azaroaren 6ko batzarrean *Boletinaren* gehigarri gisa argitaratzen jarraitzea eta urte horretan ale bakarra kaleratzea erabakitzen du. Ez da zehazki esaten euskara hutsean izango denik, baina literatura-lanak eta euskaltzainen hitzaldiak argitaratuko direla adierazten da:

publicándose en un volumen los dos últimos trimestres de este año, insertándose en ella los trabajos literarios y las Conferencias que los profesores de la Academia Vasca celebran en el último jueves de cada mes, los cuales están dispuestos con sumo gusto a colaborar, con lo cual se dará nueva vida a la revista que seguirá en calidad de suplemento del Boletín. [...] mientras *Egan* debiera convertirse en órgano de divulgación de los temas euskéricos [...] (EAE 192 Batzar agiria).

Urkixo Mintegiko hiru kideek, Antonio Arruek (1903-1976), Aingeru Irigaraiak (1899-1983) eta Koldo Mitxelena (1915-1987), hartu zuten aldizkariaren ardura 1953an, eta euskara hutsezko lehen zenbakia kaleratu zuten. Urkixo Mintegiak 1954an aldizkariaren lehen zenbakia argitaratu zuenean (*ASJU*), izan ere, euskarazko idazlanak salbuespen ziren. *Egan* aldizkarian argitaratzeko baldintza bakarra euskaraz izatea zen, eta kultur esparrua euskararena ere bazela erakutsi zuten. Aldizkarirako zituzten “Asmo berri”ak kaleratu zituzten 1954ko alean, baina ordurako Mitxelena adieraziak zituen -hizkuntza indarberritzea, eredu berria

lantzea, munduaz ere euskaraz aritzea, euskal kultura modernizatzea...–1951n *Eganen* argitaratu zuen “Euskal literaturaren etorkizuna” gogoetalaran jakingarrian:

hizkuntzak aurrerantzean ere bizitzeko behar duen kemenez indarberritzea, gure arloa da. Larre-hizkuntza dena kale-hizkuntza bihur dedin, hain maite dugun garo-usaina [...] zertxobait galtzea nahitaezkoa izango du. [...] Eta euskara biziko baldin bada –eta gure aurrekoena ez baina geure izaera benetan azalduko baldin badugu–, gure herrietako biziera nahasia euskaraz jarri behar nahita ez (Mitxelena, 2011 [1951]: 78-79).

Hona, 1954an “Asmo berri” editorialean ziotena: “Kalera begira ari nai degu, baserrira baiño geiago. Eta kalean, gure gisako ikasi edo erdi ikasientzat. [...] berdin zaigu izkera emengoa edo angoa izatea, euskera –izenez eta izanez euskera– baldinbada” (*Egan* 1954-2/4, 1-2).

Hamarkada horretan, Zaitegik ere euskara kultur hizkuntza bilakatzeko *Euzko-Gogoa* aldizkaria abiatu zuen erbestean. Garai hau ikertu duen Joseba Intxaustik aipatzen du bi aldizkariak –*Egan* eta *Euzko-Gogoa*– euskal kulturaren berritasun bat izan zirela, kultura jaso eta eskolatua euskaraz ere egin zitekeela baieztatu zutelako:

1950eko hamarkadak bestelako berritasun ausarta dakar euskal kulturara, Erbestean bezala Hegoaldean ere: euskarazko kultur aldizkari erdi-eta goi-mailakoena. Bi izen dira aipatzekoak: Bata Ameriketako *Euzko-Gogoa* (Guatemala, 1950-1955; Miarritze 1956- 1959). Bestea bertakoa, *Egan* (Donostia: 1948, 1954...). Berritasun nabaria da hau, kultura jaso eta eskolatua euskaraz ere egin daitekeela baieztatzen diguna. Esperientzia berri hau ezinezkoa zen 1940ko hamarkadan, baina egingarria gertatu zen hurrengoan (Intxausti, 2014 [2007], I: 356).

Areago, gaia ikertu ez ezik garaiko lekukoa ere izan zen Intxausti, eta zer-nolako giroa sortu zuten aipatzen du: “Garaiko gazte euskaltzaleok adi-adi geunden *Euzko-Gogoari* zein *Egani*, aldizkari bakoitzak baitzitu bere xarma eta erakarmena, elkarren osagarri edo kontrajarriak zirenak” (Intxausti, 2014 [2007], I: 358).

Euzko-Gogoa bere burua horrela definitzen zuen: “Irakurri ta zabaldu «Euzko-Gogoa» euskal aldizkari bakarra” (*Euzko-Gogoa*, 1954-3/4), eta geroago letra larriz “Euskal Aldizkari Bakarra. Irakurri Ta Zabaldu «Euzko-Gogoa»” (*Euzko-Gogoa*, 1954-9/10). Aldizkarian aipuok agertu zirenerako, ordea, *Egan* kalean zen eta osorik euskaraz argitaratzen zen.

Egan aldizkaria hizkuntzaren historian eta euskal literaturan eman diren gertakari eta aldaketa sakonen lekuko dugu. Euskara (hizkuntzaren batasuna, filologia) eta literatura (sorkuntza, literatura-kritika) lanez gain, ordura arte euskaraz landu gabeko gaiak kaleratu ziren, zinemari eta fisikari buruzkoak, esaterako (Koldo Mitxelenaen zinema-kritikak eta Federiko Krutwig-en “Physica berriaren problemat batzuei buruz” artikulua: 1961-4/6, 168-181).

1953an hasitako bigarren aldian, Koldo Mitxelena 1983tik zendu zen arte, 1987 arte, Juan San Martin euskaltzaina ere lankide izan zuen. Une honetan nabarmendu nahi dut, Euskaltzaindiaren mendeurrenaren ospakizunen atarian egonik eta 1956an Arantzazun antolatu zuen “Euskaltzaleen Lehen Biltzar” hura gogoratuz, bigarren aldi honetako hogeita hamalau urte luzeetan *Eganek* izan zituen lau gidariak euskaltzainak zirela.

Arantzazuko Biltzar hura egiteko eta ondotik antolatu ziren beste hainbatetarako ere baimena behar izaten zen. Baimen hori lortzeko, Villasantek dioenez, “Arrue jaunagan aurkitu zuen beti Euskaltzaindiak lagun bat inoiz ez gezurtatua. [...] lege gizon zen aldetik Arrue jaunagan habe sendo-leiala aurkitu zuen [Euskaltzaindiak]” (1979: 9-14). Arrueek Biltzar hura egin zedin baimena lortzeaz gain, parte hartu zuen Biltzarrean ere, eta itxierako hitzaldia egin zuen hitz hauekin: “Guk egin bear degun gauza bakarra da, danok euskeraren alde aldegun lan guzia egin. [...] (1956: 301). Biltzarrean agertutako iritzien berri izateko ere funtsezko iturria da *Egan* aldizkaria (ikus, esaterako, “Arantzazu’ko Batzarrak: iritzi ta aburu” 1956-5/6, 123-127).

Horra, batean zein bestean, “gure mintzabide biziaren alde lan egiteko” agertzen den asmoa. Euskal kulturarentzat urte mugarria izango da 1956a: aipatutako Euskaltzaindiaren Arantzazuko I. Biltzarra eta Eusko Jaurlaritzak deituta Parisen egin zen Euskal Batzar Orokorra gertakari esanguratsuak izan ziren. Bestalde, argitalpen berriak sortzen dira eta aurrekoek gorakada nabarmena egiten dute: *Jakin* aldizkaria sortzen da, eta Arantzazuko batzarkide haien artean zabaltzen da lehenengoz; *Euzko-Gogoa* orduan dator Guatemalatik Iparraldera; *Eusker*a aldizkariak ere gerraondoko lehenengo ale trinkoa kaleratzen du, eta *Eganek* biderkatu egiten ditu bere orrialdeak, orduko eta hurrengo hamarkadako Mitxelenaen kritika-lanek ahalbidetuko dute gorakada hori.

Eganek urtebeteko etenaldia izan zuen 1988an, Koldo Mitxelena zendu eta hurrengo urtean. Orduan hasten da aldi berri bat, laburragoa, 1989tik 1992 arte. Lehen urtean Juan San Martinek eta Iñaki Zumaldek gidatu zuten aldizkaria eta San Martinek utzi ondoren, Zumaldek baka-

rrik. Sortu berria zen Euskal Idazleen Elkartetik (1982) laguntzaileak ere izan zituzten, Arantxa Urretabizkaia eta Andu Lertxundi. Garai honetan, aldizkariak ibilbide berri bat hartu zuen narratiban, eta euskal idazle berriei bere lekua egiten utzi zitzaien.

1992an eman zitzaion hasiera laugarren aldiari edo, aldizkaria euskara hutsean argitaratzen hasten denetik, hirugarren aro nagusiari. Ordutik 2017 arte eraman dute aldizkariaren zuzendaritza Gillermo Etxeberriak eta Luis Mari Mujika zenak. Ez dira, ordea, aldizkaria zuzentzera mugatu, hitzaldiak eta omenaldiak ere antolatu izan dituzte, Udako Euskal Unibertsitatean parte hartu izan dute eta beste elkarte batzuekin ere harremanak izan dituzte, baita Ipar Euskal Herrian ere. Epealdi honetan, bestalde, berrikuntza nabariak egin dituzte, aldizkariaren itxura aldatu eta “azterketa literarioa” eta kritika sailak indartu dituzte. Gillermo Etxeberriak berak, dena den, aurreko lanean zuzenago eta zehatzago azaltzen ditu izan zituzten asmoak eta azken hogeita bost urte hauetan egindako ibilbidearen nondik norakoa.

Hona, laburbilduta, *Eganek* sorreratik gaurdaino ezagutu dituen aldiak: 1948-1953, elebiduna; 1953-1987 (bigarren garaia edo lehen aro nagusia), euskara hutsean 1953tik; 1989-1992; 1992-2017.

Honengatik guztiagatik, eta ibilbide hau aurrean dugula, guretzat ohorea ez ezik *ardura* ere bada euskarak esparru urria zuenean, 1948ko lehorte hartan sortu, hazi eta gaur arte modu jarraian heldu denari eustea, gaurkotzea, garai berriotara egokitzea, kalitatea eskaintzea eta erakustea aldizkari zientifikoa edo goi-mailakoa izan dadin.

Asmo berri horiekin sortu da Erredakzio Kontseilua eta ahalegin berezia egiten ari gara aldizkariaren kalitatea hobetzeko, batik bat edukia- ren, hizkuntzaren eta estiloaren aldetik. Edukiaren arloan, binakako ebaluazio sistema (itsu bikoitza) erabiliko da; euskararen kalitatea zainduko da, eta testuak Euskaltzaindiaren arauetara egokituko dira; aldizkariaren estiloari dagokionez, jatorrizko idazlanak aurkezteko irizpideak ezarri dira eta argitalpenak bateratuko dira.

Irizpide horiek “idazlanak aurkezteko jarraibideak” lanean biltzen dira, eta ale honen amaieran eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko bascongada.eus webgunean, argitalpenen sailean, irakur daitezke.

Jomuga berri honetan, literatura arloko ikerketa-artikuluak bultzatu eta argitaratu nahi ditugu. Orobat aintzat hartuko ditugu literaturari buruzko doktore tesien laburpenak eta liburu aipamenak. Beste diziplina

bati atxikiak izan arren, literaturarekin ageriko lotura izan dezaketen lanak ere argitaratuko ditugu.

Zabalkundearen aldetik ere bultzada berria eman nahi diogu aldizkariari, garai berriotara egokitu, eta urtero argitaratzen diren bi aleak paperean ez ezik sarean ere eskaini nahi ditugu. Oraingo argitalpen honetan, 1993. urtetik 2017 arte aldizkarian argitaratutako lanak bildu, sailkatu eta hiru aurkibide argitaratu ditugu. Elkarteko bascongada.eus webgunean ere irakurgai izango dira.

Egan aldizkariaren gidari berriontzat hartu dugun *erantzukizuna* erronka bat ere bada, baina literaturaz gozatzen jarrai dezagun, goi-mailako aldizkaria izan dadin eta segida luzea izan dezan ahaleginak egingo ditugu, 70 urteko ibilbidea duen *Eganek* merezi baitu.

Urtemuga honetan zoriondu eta eskertu nahi ditugu aldizkariak izan dituen gidari eta bultzatzaile guztiak, bereziki gure aurreko biak, Luis Mari Mujika eta Gillermo Etxeberria; orobat adiskide, egile, idazle eta irakurleak, zuek guztiok erdietsi duzue, haize-erauntsi orori aurre eginenez, *Eganen* izaerari eustea eta honaino ekartzea. Aurrera egin dezan ere, zuen laguntza eta basesa izango ditugulakoan abiatua gara hegaldi berri honetan.

Gure esker on bereziak eman nahi dizkiogu Imanol Alkorta inprimatzaileari, *Egan* aldizkariak argia ikus dezan urtetan egin duen eta eginen diharduen lan profesional isil eta eskergagatik. Eskertu nahi dugu Xabier Obeso margolaria ere, EAEko Adiskidea, aldizkariaren azal eta logotipo berriak berari zor zaizkio.

Hemendik Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza ere esker nahi ditugu, *Egan* aldizkaria haien laguntzari esker baita bizirik, 70 urte betetzera iritsi delarik.

Hegan segi dezala, euskal literatura sustatzen jarraitzeko eta literaturatik *Egan*. Halabiz.

Aipamen bibliografikoak

Altzibar, Xabier, 1985, "Euskara Adiskideen Batzarrean", in Melena, J.L. (ed.), *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, Gasteiz: UPV-EHU, II, 1119-1136.

Arrue, Antonio, 1956, "[Euskaltzaindiaren I. Biltzarraren azken hitzak]", *Euskera* 1, 300-301.

- Estatutos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del Pais*, según el Acuerdo de sus Juntas de Vitoria. *Por Abril de 1765*, San Sebastián: L.J. de Riesgo.
- Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte (EAE). Batzar Agiriak.
- Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del Pais (1780-1782)*, 1985, Donostia.
- Intxausti, Joseba, 2014 [1998], “Talde euskaltzaleen garapen historikoaz (XVI-XX. mendeak)”, in *Euskara eta Hizkuntzak Gizartean. I. Aitorpenak. Ekinbideak*, Bilbo: Euskaltzaindia, Etxeberri Bilduma, 19-69. [Jat. ed., 1998, in Intxausti, J. (arg.), *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak. Donostiako Udako XII. Ikastaroak (1993)*, [Bilbo]: UPV-EHU, 17-56].
- Intxausti, Joseba, 2014 [2007], “Jakin (1956), aurreko eta berehalako testuinguruan”, in *Euskara eta Hizkuntzak Gizartean. I. Aitorpenak. Ekinbideak*, Bilbo: Euskaltzaindia, Etxeberri Bilduma, 351-375. [Jat. ed., 2007, *Jakin* 158, 53-76].
- Larrañaga Elorza, Koldo, 1991, “Euskal egitate bereizgarriaren ardura eta euskararena bereziki Bergarako Erret Mintegi abertzalearen hezkuntz egitarraean”, *Tantak (Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntz Aldizkaria)* 6, 65-85.
- Madariaga Orbea, Juan, 2014, “La Real Sociedad Bascongada y el idioma escolar”, in *Sociedad y Lengua Vasca en los siglos XVII y XVIII*, Bilbo: Euskaltzaindia, Etxeberri Bilduma, 281-294.
- Mitxelena, Koldo, 2011 [1951], “Euskal literaturaren etorkizuna”, in Lakarra, Joseba A. & Arzalluz Ruiz, Iñigo (arg.), *Obras Completas XIV*, Donostia / Gasteiz: ASJU / Gipuzkoako Foru Aldundia-Diputación Foral de Gipuzkoa / UPV-EHU, 75-80. [Jat. ed., 1951, *Egan* 3, 17-21].
- Mitxelena, Koldo, 2011 [1960], *Historia de la literatura vasca*, in Lakarra, Joseba A. & Arzalluz Ruiz, Iñigo (arg.), *Obras Completas XIII*, Donostia / Gasteiz: ASJU / Gipuzkoako Foru Aldundia-Diputación Foral de Gipuzkoa / UPV-EHU, 81-205. [Jat. ed., 1960, Madrid: Minotauro].
- Reglamento para los alumnos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del Pais*, 1985, San Sebastián-Donostia: Sociedad Gipuzcoana de Ediciones y Publicaciones-Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea.
- San Martín, Juan, 1984, “Egan aldizkaria 30 urte euskal literaturagintzan”, *Egan* 5/6, 5-7.
- Villasante, Luis, 1979, “Antonio Arrue Zarauz (1903-1976)”, in Arrue Zarauz, Antonio, *Jan-Edanak*, Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 9-14.



***EGAN* (1993-2017)**
Aurkibideak

EGAN (1993-2017)

Aurkibideak

*Koro Seguro*la Azkonobieta
EGAN aldizkariaren zuzendaria

Egan literatura aldizkariaren lehen aurkibideak 1993. urtean argitaratu ziren. Haietako 1948tik, aldizkariaren sorreratik, 1992 arteko ibilbidea hartu zuten (1948-1992). Orain argitara ematen ditugun bigarren aurkibideok ordutik honako lanak biltzen eta sailkatzen dituzte, altxor horren ezagutza eta erabilera errazteko asmoz (1993-2017).

Aldizkariaren 70. urteurrenean Erredakzio Kontseilu abiatu berriak egokiera aproposa ikusi du aurkibideok argitaratzeko. Bada bestelako arrazoirik ere argitalpen honetarako: Luis Mari Mujika zenak (1939-2017) eta Gillermo Etxeberriak 1992an aldizkariaren norabide berria hartzeko garaian eta aldizkariak 45 urte bete zituenean, ordura arteko ekarpenak modu erabilgarri eta egituratuan ezagutarazteko erabakia hartu zuten, “Aurkibide Nagusia (1948-1992)” argitaratuz.

Haien urrats hura jarraituz dator zuzendaritza berriaren lehen argitalpen hau, eta, urte horietan guztietan egin duten lana aitortzearekin batera, gure esker ona adieraztera. Orobat gogoan ditugu eta eskertzen sorrerako eta ondoko argitalpenetan irakur daitezkeen egile eta idazle guztiak, zuen parte-hartzerik gabe ez bailitzateke *Egan* izango, ez zen 70 urte betetzera helduko.

Argitalpen honek etorkizunerako ez ezik oroimenerako eta omenaldirako hegoak ere zabaldu nahi ditu. Horregatik guztiagatik, 1993-2017 aurkibideekin batera 1948-1992 aurkibideak ere facsimile gisa argitara ematen ditugu, ale honen amaieran.

1948-1992 aurkibideak

Lehen aurkibide hauek 1993. urtean atera ziren ale berezi batean eta 1992. urtean argitaratutako lanak ere biltzen dituzte. Bi aurkibide aurkezten dira: “autoreen aurkibidea” eta “aurkibide tematikoa”. Bigarren honetan, erreferentziak zazpi atal nagusitan atontzen dira: literatur azterketa, sorkuntza, sorkuntza gaztelaniaz, itzulpenak, hizkuntza, adabakiak eta bibliografia. Hauen barnean, berriz, gai zehatzagotan sailkatuta ematen dira. Bestalde, “aurkibide tematiko” hau irizpide kronologikoaren arabera antolatua da, eta ez egilea-urtea sistema jarraituz. Gainerako ezaugarriak eta azalpenak ale honen amaierako facsimilean irakur daitezke.

1993-2017 aurkibideak

Aurkibide berriok ia mende laurden baten ibilaldia hartzen dute. Aurrekoek ez bezalako egitura dute eta hiru apailatu ditugu: egileak (I), gaiak (II) eta aleak (III).

I. Egileak

Irizpide hauen arabera antolatu dugu aurkibidea:

- egilea-urtea sistema jarraitu dugu;
- egile batek lan bat baino gehiago argitaratu duenean, sarrera bakoitzean errepikatu dugu bere izena;
- argitalpen urtea izenburuaren ondotik ere idatzi dugu eta honi erantsita adierazi dugu alearen zenbakia;
- erreferentziak komatxo artean eman ditugu;
- erreferentzia bakoitza zein gaitan sailkatua den ere erantsi dugu, sarrera bakoitzaren amaieran eta kako zuzenen artean.

